

Berri internazionalak



**Gazteen inguruko hainbat berri
internazional labor**

Gazteei eta enpleguari buruzko on-line kontsultaren emaitzak: gazteen enplegua sustatzeko lehentasunezko hamar gomendio

[Espainiako Gazteriaren Kontseilua](#) izan da Gazteei eta Enpleguari buruzko III Kontsulta Nazionala antolatzeaz arduratu dena. Kontsulta 2010eko urriaren 2tik 4ra, Lovainan, EBren Belgikako presidentetzaren baitan garatu zen, eta gazteengan eta enpleguan oinarritu zen. Konferentzia horretan, nazio-mailako kontsultak sustatzea eskatu zitzaizen estatu kideei, gazteen enplegua hobetzera bideraturiko gomendioak biltze aldera.

Horren haritik, Espainiako Gazteriaren Kontseiluak on-line kontsulta bat antolatu du 2010eko azken hilabeteetan, bai eta gazteengandik eta gazteekin lan egiten duten pertsonengandik gomendio ugari jaso ere. Beranduago, jardunaldi batzuk antolatu ditu Valladoliden, 2011ko urtarrilaren 14tik 16ra, Espainiaren lehentasunezko hamar gomendioak aukeratzeko.

Gomendio horiek dokumentu honetan eskura daitezke: [III Consulta Nacional sobre el empleo juvenil en la UE. Documento de conclusiones](#) (pdf, 776 kb).

Berri internazionalak: Gazteak Ekinean, Salto...

Gazteak Ekinean: 2011. urteko lehentasunak, gida eta formulario berriak

Plazaratu dira jada aurten, Gazteak Ekinean programaren baitan garatzen diren ekintzetan balorazio berezia izango duten urteko lehentasunak. Era berean, dagoeneko behera karga daitezke Gazteak Ekinean programaren 2011ko formularioak, bai eta gida ere.

Hona Batzordeak Gazteak Ekinean programarako hautatu dituen **lehentasunak** 2011rako:

+ Boluntario Lanaren Europar Urtea

Lehentasun honen helburua honako hau bultzatzen duten proiektuak sustatzea da: engaiamendu aktibo gisa eta garapen pertsonal, sozial eta profesionalaren aldeko gaitasunak areagotu edo hobetzeko tresna gisa boluntario-lanak duen balioaren eta garrantziaren inguruan sentiberatuko dutenak.

+ Gazteen langabezial

Lehentasun honen helburua honako hau bultzatzen duten proiektuak sustatzea da: gazte langabeak Gazteak Ekinean programan sartzea. Era berean, lehentasuna emango zaie gazteen langabeziari aurre egingo dioten eta/edo gazte langabeen mugikortasuna eta gizarte-partaidetza aktiboa piztuko duten proiektuei.

+ Garapen inklusiboa

Lehentasun honen helburua honako hau bultzatzen duten proiektuak sustatzea da: gizarte inklusiboagoa lortze aldera, pobrezia eta marjinalizazioari aurre egingo diotenak eta, arazo horiei dagokienez, gazteen sentiberatzea eta engaiamendua sustatuko dutenak. Horren harira, arreta berezia emango zaio etorkin, ezgaitu eta, kolektibo handia izanez gero, ijito gazteen inklusioari.

+ Ingurumen-erronka globalak eta klima-aldaketa

Lehentasun honen helburua honako hau bultzatzen duten proiektuak sustatzea da: gazteak ingurumen-erronka globalen eta klima-aldaketaren inguruan sentiberatzea eta mobilizatzea xede dutenak, gazteen eta gazteekin gizartelanean dihardutenen artean trebetasun eta jokaera "berdeak" garatzeko eta garapen iraunkoragoarekiko konpromisoa sustatzeko tresna diren aldetik.

+ Sormena eta espiritu ekintzailea

Lehentasun honen helburua honako hau bultzatzen duten proiektuak — bereziki, gazte-ekimenak— sustatzea da: ekonomia-, politika-, gizarte- edo ingurumen-helburuak lortze aldera, gazteengan espiritu ekintzailea, sormenez eta originaltasunez pentsatzeko gaitasuna, arriskuak beren gain hartzeko jarrera eta asmamena piztuko dutenak.

✚ EB-Txinako Gazteen Urtea (2. Ekintzarako eta 3.2. Azpiekintzarako baino ez)

Gainera, Gazteak Ekinean programari lotutako munduko beste herrialde batzuekin lankidetzan aritzeko moduko Ekintzetan, arreta berezia emango zaie EB-Txinako Gazteen Urtea 2011 sustatze aldera, EBren eta Txinaren arteko elkarrizketa, lankidetzeta eta trukeak bultzatuko dituzten proiektuei.

Hemen eskura ditzakezu Gazteak Ekinean programaren baitan gazte-proiektuak sortzeko 2011ko [gida](#), bai eta programan parte hartzeko eskaera egiteko [formulario berriak](#) ere:

Era berean, gogoratzen dizuegu programan parte hartzeko eskaerak ondoko epeen barruan aurkeztu behar direla:

2011ko maiatzaren 1aren eta irailaren 30aren artean hasten diren proiektuak: 2011ko otsailaren 1a arte.

2011ko uztailaren 1aren eta azaroaren 30aren artean hasten diren proiektuak: 2011ko apirilaren 1a arte.

2011ko irailaren 1aren eta 2012ko urtarrilaren 31ren artean hasten diren proiektuak: 2011ko ekainaren 1a arte.

2011ko abenduaren 1aren eta 2012ko apirilaren 30aren artean hasten diren proiektuak: 2011ko irailaren 1a arte.

2012ko otsailaren 1aren eta uztailaren 31ren artean hasten diren proiektuak: 2011ko azaroaren 1a arte.

Suitza Gazteak Ekinean familian sartu da

Suitzar gazteak Gazteak Ekinean programak eskaintzen dituen aukera ugariak aprobetxa ditzakete dagoeneko, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, hain zuzen ere. Era berean, Europar Batasuneko gazteek Suitzan, programa horren baitan garatzen diren proiektuetan parte har dezakete jada.

Suitzak Gazteak Ekinean familiarekin bat egin du, 2010eko otsailaren erdialdean Europar Batasunak eta Suitzako Konfederazioak sinatu zuten alde biko akordioari esker.

Gazteak Ekinean honakoek osatzen dute:

Programaren 31 herrialdeek (EBko 27 estatu kideak) gehi Islandia, Liechtenstein, Norvegia eta Turkia, elkaturiko 23 herrialde auzoek (Hego-Ekialdeko Europa, Ekialdeko Europa eta Kaukaso eta Mediterranea), bai eta mundu osoko 118 herrialde elkartuek.

Suitzak, beraz, programaren gainerako 31 herrialdeen betebeharrak ditu aurtengo urtarrilaren 1etik hasita, eta 5,4 milioi euro inbertituko ditu programa 2011-2013 epealdian finantzatzeko.

Hezkuntza, Kultura, Eleaniztasun eta Gazteria komisario eta akordioaren sinatzaile Andrroulla Vassilliouk esan duenez, akordio hori (Etengabeko Ikaskuntzaren aldeko programa ere barne hartzen duena) "oso garrantzitsua da".

SALTOk gizarte-langileei gazteen enplegarritasuna areagotzen lagunduko dien azterlana aurkeztu du

SALTO-YOUTHek, Gazteak Ekinean programaren laguntza eta ikaskuntza eta prestakuntza aurreratuko baliabideen zentroen sareak gazteen arloko gizarte-langileei langabezian edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden gazteen enplegarritasuna areagotzen lagunduko dien azterlan bat aurkeztu berri du.

Azterlana, *Inclusion through Employability: Youth Work Approaches to Unemployment* izenekoa, SALTO INCLUSION –SALTO-YOUTHen inklusio-atala–gazteen langabeziaren aurka epe luzera burutzen ari den estrategiaren baitan dago. Txostena langabeziari eta gizarte-bazterkeriari buruzko azkeneko argitalpenen azterketa zabalean eta Europa osoan gazte-enpleguaren aldeko proiektuen ardura duten adituen mahainguru batean oinarritzen da.

Gazteekiko gizarte-lana eta gazte-proiektuak arrakastatsuak izan dira aukera urriagoak dituzten gazteei ikastunaldiak eta lan iraunkorrak eskuratzen laguntzeko. Azterlanak gazteen enpleguaren aldeko ekimen horien baitan dauden arrakasta-faktoreak jorratzen ditu:

Aukera urriagoko gazteen enplegagarritasuna eta parte-hartzea horiei zuzenduriko ekintzak eta programak taxutzeko garaian.

Koordinazio eta politika integralak, behar-beharrezkoak direnak, bai eta arazora diziplinarteko ikuspuntu batetik eta epe luzera hurbiltzea.

Ikaskuntza ez formala, gazteei enplegarritasuna handitzen lagunduko dieten trebetasunak egokiro emateko tresna den aldetik.

Enpresa-ekimenak gauzatzeko baliagarriak diren trebetasunak garatzea.

Argitalpenean hainbat ekimen arrakastatsu azaltzen dira, gomendio horien guztien erakusgarri.

Nazio Batuen Erakundearen Gazteentzako Ekintzarako Mundu Programa

Gazteen artean bakearen, elkarrekiko errespetuaren eta herrien arteko ulermenaren idealak sustatzeari buruzko deklarazioa 1965ean sinatu zenetik bi hamarkada igaro zirenean, 1985ean, Gazteen Nazioarteko Urtea ospatu zen. Urte hartan, nazioarteko arreta gazteek munduan betetzen duten eginkizun garrantzitsura eta, bereziki, garapenaren alde egiten dituzten ekarpenetara bildu zen. 1995ean, gazteek hurrengo milurtean izango zituzten erronkei erantzutera bultzatu zuen Nazio Batuen Erakundeak nazioarteko komunitatea. Hartara, onartuta geratu zen **Gazteentzako Ekintzarako Mundu Programa** 2000ra arte eta haratago.

2000. urtetik hamarkada bat igaro bada ere, Programak ez du gaurkotasunik galdu. Are gehiago, Nazio Batuek Programa argitalpen batean jasotzea erabaki dute, *World Programme of Action for Youth* liburuan, hain zuzen ere. Bertan, 1995ean onartutako testua ez ezik, 2007an erantsi zitzaiona ere aurki daiteke.

Gazteentzako Ekintzarako Mundu Programak politikak garatzeko esparrua eskaintzen du, bai eta nazio-mailan esku hartzeko zein nazioarteko laguntza antolatzeko jarraibide praktiko batzuk ere, beti ere gazteen egoera hobetzeko xedearekin. Barne hartzen dituen proposamenak 1985eko Gazteen Nazioarteko Urteko helburuak lortzera eta gazteentzako ongizate- eta sostengu-maila handiagoak sustatzeko beharrezkoak diren baldintzak eta mekanismoak abiaraztera bideratuta daude.

Programa, hasieran, lehentasunezko **hamar arlotan** banatuta zegoen; gerora, beste bost erantsi zitzaizkion:

- A. Hezkuntza
- B. Enplegua
- C. Gosea eta pobrezia
- D. Osasuna
- E. Ingurumena
- F. Drogen abusua
- G. Gazteen delinkuentzia
- H. Astialdiko jarduerak
- I. Neskak eta emakume gazteak
- J. Gazteen parte-hartze oso eta eraginkorra gizarte-bizitzan eta erabakiak hartzen diren eremuetan
- K. Globalizazioa
- L. Informazio eta komunikazio teknologiak
- M. GIB/hiesa
- N. Gatazka armatuak
- O. Belaunaldi arteko gaiak

Arloetako bakoitzean, dagozkion erronka nagusien laburpena eta esku-hartzea burutzeko hainbat proposamen aurki daitezke.

Agiri honetan agertzen diren proposamenak 2006an argitaratu zen [Gazteentzako Ekintzarako Mundu Programa ezartzeko gidaliburuarekin](#) osatzen dira

Hasi berri da EB-Txinako Gazteen Urtea



Europako Hezkuntza, Kultura, Eleaniztasun eta Gazteria komisario Andrroulla Vassiliou-k eta Txinako Gazteria Federazioko lehendakariorde Lu Yongzheng-ek [Europar Batasuneko eta Txinako Gazteen Urteari](#) hasiera eman diote Bruselan urtarrilaren 11n. Otsailean beste hasiera-ekitaldi bat egongo da Beijingen. Gazteen Urtea 2011ko azaroan amaituko da.

Europar Batasunaren eta Txinaren arteko 2009ko Goi Bilkuran erabaki zen **2011 Gazteen Urtea** izango zela. Hartara, Lider Gazteen Bilkura antolatu zen 2010eko maiatzean, eta hasi berri den urte honetarako helburuak eta baterako jarduera-plana adostu urrian.

Bi arrazoi nagusi egon dira erabaki horren atzean: batetik, gazteen, lider gazteen eta gazteen erakundeen arteko trukeak eta elkarlana kultura-aniztasunaz ohartzeko eta pertsonen arteko kontaktua, elkarrekiko tolerantzia eta elkartasuna indartzeko funtsezko bideak dira; eta, bestetik, beharrezkoa da gazteen jarduerak, sareak eta epe luzeko lankidetzaharremanak ezartzea.

Hori guztiori dela eta, honako **helburu hauek** izango ditu Gazteriaren Urteak:

Europako eta Txinako gazteengan kulturen arteko hartu-emana, elkar-ulertzea eta adiskidetasuna bultzatzea;

Gazteei Europar Batasunaren eta Txinaren garapena zaindu eta indartzearen garrantzia erakustea; eta

Eragin positibo eta zabala lortzea eta gazte-politiken arduradunen eta gazteen erakundeen arteko lankidetzak 2011tik harago luzatzea.

Helburu horiek erdiesteko, **hainbat jarduera** antolatu dira, besteak beste, EB-Txinako Gazte Kulturen Astea (data iragartzeke) eta EB-Txinako Unibersidade Gazteen Jaialdia (abuztuan).

Gazteen elkarteek EB-Txinako Gazteen Urtearen xedeak lortzen lagun dezakete, elkarrekiko lankidetzaren proiektuak, sareak, boluntarioen proiektuak, gazteen edo erakundeen arteko trukeak antolatuta. Horrela, bada, elkarteek Gazteak Ekinean programaren 3.2. Ekintzaren (Gazteak Munduan) edo 2. Ekintzaren (Europako Boluntario Zerbitzua) bitartez har dezakete parte egitasmo hauetan. EB-Txinako Gazteen Urtearen baitan egiten diren jarduerak horiek 2011ko abenduaren 31ra arte gauzatu ahal izango dira.

Gazteen arloan sinergiaz betetako urtea da hau, Europar Batasuneko eta Txinako Gazteen Urtea izateaz gain, aurten [Gazteen Nazioarteko Urtea](#) eta Boluntario Lanaren Europako Urtea ere badelako.

Dagoeneko prestatu duzu zeure jarduera Gazteen Nazioarteko Urtea ospatzeko? Oraindik garaiz zabilta!



Gazteen Nazioarteko Urtearen erdi-erdian gaude, 1985etik hona errepikatu ez den gertakaria.

1985ean Gazteen Nazioarteko Urtea ospatzeak aldaketa handia ekarri zuen gazteentzako zerbitzuak eta gazte-politikak ulertzeko moduan: aisiara mugatuta egotetik gazteen errealitatearen ikuspegi globala aintzat hartzera igaro ziren.

Nolako aldaketak ekarriko ditu 2010-2011ko Gazteen Nazioarteko Urteak? Zati batean, behintzat, zeure esku dago. Antola ezazu Gazteen Nazioarteko Urtea ospatzeko ekitaldi bat eta argi utz ezazu zenbaterainoko ahalmena duen.

Oso erraza da: sar zaitetz [Nazio Batuen Gazteria Programaren](#) webgunean. Behera karga ezazu [jardueren kit-a](#), hainbat ideia emango dizkizuna. Antola ezazu zeure jarduera eta jar ezazu [jardueren egutegian](#), mundu osoak ezagutu dezan. Azkenik, goza ezazu zeure ekimenarekin!

Arin ibili, epea abuztuaren 11n amaituko da eta!



AÑO INTERNACIONAL DE
LA JUVENTUD
AGOSTO 2010-2011
NUESTRO AÑO NUESTRA VOZ